# EBAZPENA / RESOLUCIÓN

**Espediente zk./ Expediente nº:** 899/2026
**Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen**
**Prozedura/ Procedimiento:** Getxoarte egoitza-beka/ Beca residencia Getxoarte
**Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente:** 2026 GETXOARTE BECA VII. EGONALDI BEKA DEIALDIA - VII EDICION BECAS RESIDENCIA GETXOARTE

GETXO KULTURA
**GORKA MOSTAJO GALDUROZ (1, guztira 1)**
Getxo Kulturako presidentea / Presidente de Getxo Kultura
Sinaduraren data: 11/03/2026
HASH: ba739ba0866aa529deedafb88c7d73a8

Lehendakaritzaren ebazpena, Getxo Kultura

Resolución de Presidencia Getxo Kultura

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

### AURREKARIAK

I. - Beka honen helburua da ikerketa-prozesu eta -espazio ez-formalak ikusaraztea haren garapenean bitartekaritza txertatzen duen edozein praktika artistiko garaikideren inguruan, Getxon ekoitzi eta bizitzeko beka baten bidez, eta artista belaunaldi berriak sor daitezen bultzatzea.

Egonaldi beken helburua da Getxoko kolektibo espezifikoekin lan egiten duten proiektuak hautatzea, egonaldian zehar egindako ikerketan parte hartzea funtsezkoa izan dadin lan artistikorako.

Egonaldi bekak udalerriko kultura-egitura bultzatzeko tresna dira, eta egoiliarrak Getxoko egitura artistikoan sartzeko eta udalerriko ekitaldietan modu aktiboan parte hartzeko aukera emango dute.

Edizio honetan, hiru (3) beka emateko deialdia egiten da, bakoitza 5000 eurokoa, eta 10.000 euroko laguntza osagarri bat hautatutako proiektuetako bat ekoitzi eta erakusteko.

### ANTECEDENTES DE HECHO

I.- El objeto de estas becas es visibilizar procesos y espacios de investigación no formal en torno a cualquier práctica artística contemporánea que incorpore la mediación en su desarrollo, mediante un apoyo en forma de beca de producción y residencia en Getxo, y promover la aparición de nuevas generaciones de artistas.

Las becas de residencia buscan seleccionar proyectos que trabajen con colectivos específicos del municipio de Getxo, de forma que su participación en la investigación realizada durante la residencia sea una parte fundamental para el trabajo artístico.

Las becas de residencia tienen la misión de convertirse en una herramienta al servicio del tejido cultural local y es el marco para que los residentes se inserten en el entramado artístico de Getxo y participen en sus eventos de forma activa.

En esta edición, se convoca la concesión de tres (3) becas por importe de 5000 euros para cada de ellas y una ayuda complementaria de 10.000 euros para la producción y exhibición de uno de los proyectos seleccionado.

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 24

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

I.- Getxoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Orokorra, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurako Akordioz onetsia.

II.- Azaroaren 17ko 38/2003 DiruLaguntzei buruzko Lege Orokorra.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

I.- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos aprobada por el Pleno de fecha 23 de diciembre de 2021.

II.- Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2026(e)ko martxoaren 9(a)(e)ko PR/2026/397 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko martxoaren 10(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/397 de 9 de marzo de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 10 de marzo de 2026.

## EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

1.- **Getxoarte zazpigarren egonaldi bekarako deialdia onestea.**

2.- Deialdi honen helburu diren laguntzak finantzatzera bideratutako **gehieneko gastua onestea**: 25.000 euro.

3.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean **argitaratzea** da Dirulaguntzen Datu-Base Nazionaleren bitartez.

1º.- **Aprobar la convocatoria de la séptima edición de la beca residencia Getxoarte**.

2º.- **Aprobar el gasto máximo** destinado a la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria, ascendente a 25.000,00 euros.

3º.- **Publicar** la convocatoria en el BOB a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Getxon, sinadura elektronikoaren datan

En Getxo, a fecha de la firma eletrónica

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

## GETXOARTE EGONALDI BEKETARAKO VII. DEIALDIA

Getxo Kulturak Getxoarte 2026 Bitartekaritza eta Egonaldi Artistikoko Programaren zazpigarren egonaldi beketarako deialdia egin du.

### 1. XEDEA

Beka honen helburua da ikerketa-prozesu eta -espazio ez-formalak ikusaraztea haren garapenean **bitartekaritza** txertatzen duen edozein praktika artistiko garaikideren inguruan, Getxon ekoitzi eta bizitzeko beka baten bidez, eta artista belaunaldi berriak sor daitezen bultzatzea.

**Hiru ikerketa-proiektu** hautatuko dira honako hauetarako:

- ikerketa eta ekoizpen artistikoa sustatzeko,
- sortzaileak sustatzen laguntzeko; eta
- sortzaileek eta artearen eta kulturaren arloko beste artista eta profesional batzuek elkarri eragin diezaioten errazteko.

Aukeratutako ikerketa-proiektuak bost astez gauzatuko dira egonaldian, **2026ko ekainaren 1etik uztailaren 5era bitartean.**

Romo Kultur Etxean (RKE) gauzatu beharko da, aldizka zein etenik gabe, eta Getxo Kulturak aldez aurretik datak baieztatu ondoren.

Nahitaezko zortzi (8) tutoretza-ordu ezarriko dira ikerketa proiektu bakoitzaren jarraipena egiteko egonaldian zehar. Tutoretza horiek Getxo Kulturak aukeratuko profesionalek egingo dituzte. Tutoretza bakoitzeko akta bat egingo da.

Ikerketa-proiektuak deialdira aurkeztutako proposamenera egokitu beharko dira.

Proiektuaren azken formak nahitaez izango du

## VII CONVOCATORIA DE LAS BECAS DE RESIDENCIA GETXOARTE

Getxo Kultura convoca la séptima edición de becas de residencia del Programa de Mediación y Residencia Artística Getxoarte 2026.

### 1. OBJETO

El objeto de estas becas es visibilizar procesos y espacios de investigación no formal en torno a cualquier práctica artística contemporánea que incorpore la **mediación** en su desarrollo, mediante un apoyo en forma de beca de producción y residencia en Getxo, y promover la aparición de nuevas generaciones de artistas.

Serán seleccionados **tres proyectos** de investigación para:

- incentivar la investigación y producción artística;
- contribuir a la promoción de los creadores y creadoras; y
- facilitar la interacción de los/as creadores/as con otros artistas y profesionales del arte y la cultura.

La ejecución de los proyectos de investigación seleccionados tendrá una duración de cinco semanas en residencia, **entre el 1 de junio y el 5 de julio de 2026.**

Deberá desarrollarse en la Romo Kultur Etxea (RKE), tanto de forma intermitente como ininterrumpida, y previa confirmación de fechas por parte de Getxo Kultura.

Se establecerán ocho (8) horas de tutoría obligatorias para el seguimiento de cada proyecto de investigación durante la residencia. Dichas tutorías serán realizadas por personal profesional seleccionado por Getxo Kultura. Se emitirá un acta por cada tutoría realizada.

La ejecución de los proyectos de investigación deberá ajustarse a la propuesta presentada a la convocatoria.

La forma final del proyecto tendrá



Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

erakusketa-formatua, eta nahitaezkoa izango da lana koherentziaz egituratzea eta proiektuetan bitartekaritza elementu zimentagarri gisa sartzea.

Egonaldia amaitu ondoren, eta inoiz ez 2026ko uztailaren 20a baino beranduago, hiru bekadunek hiru eranskin hauek biltzen dituen **azken proiektua** aurkeztu beharko dute:

- **I. ERANSKINA:** Erakusketa-proiektua.
- **II. ERANSKINA:** RKE aretoaren planoaren gaineko proposamen grafikoa.
- **III. ERANSKINA:** Bitartekaritza-plana.

Eskabidea, hiru eranskinetako formularioa eta RKEko Erakusketa Aretoaren planoa, "*Facilities Report"* (Instalazioen txostena) batekin batera, Getxo Kulturaren web orrian eskuragarri egongo dira.

Proposamenak argitaragabea izan beharko du, eta egindako ikerketa-egonaldian kontzeptualizatu eta garatu izanaren ebidentziak jaso beharko ditu. Parte-hartzaileek deialdi honen barruan garatzen duten proiektuaren edo lanaren originaltasuna eta egiletza beren gain hartuko dute: proiektu edo obra horiek ez dira inoiz argitaratu, estreinatu edo aurkeztu antzeko deialdietan edo aurretiaz sarituak izan.

## 2. PROIEKTUA GARATU ETA ERAKUSTEKO LAGUNTZA

Deialdi honetan beka jaso duten hiru proiektuen artean, egonaldia egin ondoren, deialdiko balorazio batzordeak horietako bat aukeratuko du, ekoitzi eta RKEko erakustaretoan ikusgai jartzeko. Balorazio-batzordeak deialdi honetan horretarako ezarritako irizpideen arabera egingo du hautaketa

Presidentearen Ebazpenez, abuztuaren 14a baino lehen, hautatutako pertsona izendatuko da, 10.000 euroko laguntza ekonomiko osagarria izango duena, honako hauek helburu:

- Erakusketaren diseinua eta

obligatoriamente formato expositivo, siendo obligatorio que el trabajo se estructure con coherencia y que en los proyectos se incorpore la mediación como elemento fundamental del proyecto.

Una vez terminada la residencia, y nunca más tarde del 20 de julio de 2026, las tres personas becadas deberán presentar el **proyecto final** que contenga estos tres anexos:

- **ANEXO I: Proyecto expositivo.**
- **ANEXO II:** Propuesta gráfica sobre plano de la sala RKE.
- **ANEXO III:** Plan de mediación.

Tanto la solicitud como el formulario de los tres anexos y el plano de la Sala de Exposiciones de RKE junto a un *"Facilities Report*" (Informe de instalaciones), estarán disponibles en la página web de Getxo Kultura.

La propuesta deberá ser inédita, y deberá contener evidencias de haber sido conceptualizada y desarrollada durante la residencia de investigación. Las personas participantes se harán cargo de la originalidad y la autoría de su proyecto u obra que desarrollen dentro de esta convocatoria, que en ningún caso habrán sido ni publicadas, estrenadas, ni presentadas a otras convocatorias similares o premiadas con anterioridad.

## 2. AYUDA A LA PRODUCCIÓN Y EXHIBICIÓN DEL PROYECTO

De entre los tres proyectos becados en esta convocatoria, y una vez realizada la residencia, la comisión de valoración seleccionará uno de ellos para ser producido y expuesto en la sala de exposiciones de RKE. La comisión de valoración realizará la selección en base a los criterios establecidos en la presente convocatoria para tal fin.

Mediante Resolución de Presidencia, antes del 14 de agosto se nombrará a la persona seleccionada, quien recibirá una ayuda económica complementaria de 10.000 €, destinados a:

- El diseño y conceptualización de la

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

kontzeptualizazioa.

- Ekoizpena, garraioa, eta muntatze/desmuntatze lanak.
- Katalogoaren koordinazioa, beharrezko material grafiko guztia ekoiztea eta euskarazko zein gaztelaniazko testuak egitea eta biltzea barne.
- Erakusketaren inaugurazioa, bisita gidatua eta Bitartekaritza Planean proposatutako ekintza guztiak barne (III. ERANSKINA).

Diru-zuzkidura horretatik kanpo geratzen dira erakusketako kartelak, biniloa eta katalogoa diseinatu eta inprimatzeko eta fokuak birbideratzeko gastuak. Gastu horiek Getxo Kulturak ordainduko ditu eta aurrekontuko zenbatekoa ez da inoiz 6.500 € baino handiagoa izango. Esleipen hori Getxo Kulturako langileek bakarrik kudeatuko dute.

exposición.

- Su producción, transporte, y montaje y desmontaje.
- La coordinación del catálogo, incluida la producción de todo el material gráfico necesario, y la elaboración y recopilación de los textos en euskera y castellano.
- La inauguración de la exposición con visita guiada y todas las acciones propuestas en el Plan de Mediación (ANEXO III).

Quedan excluidos de esta dotación económica los gastos de diseño e impresión de la cartelería, vinilo y catálogo de la exposición, y reorientación de focos, que correrán a cargo de Getxo Kultura, con una asignación presupuestaria nunca superior a 6.500 €. Dicha asignación será gestionada exclusivamente por personal de Getxo Kultura.

## 3. ERAKUSKETARAKO HAUTATUTAKO PROIEKTUA GAUZATZEKO EPEA

Hautatutako proiektua gauzatzeko epea 2026ko irailaren 1etik azaroaren 25era birtartean garatuko da, Getxo Kulturak planteatutako kronogramaren arabera:

**Irailaren 21a baino lehen (45 egun lehenago**)

- Testu kuratorialak ematea
- Obren testuak eta biografia
- Obren behin betiko hautaketa
- Katalogorako materiala (bereizmen handiko irudiak)

**Irailaren 21etik urriaren 5era**

- Katalogoaren diseinu grafikoa
- Testu-zuzenketak
- Azken maketazioa
- Getxo Kulturara bidaltzea inprimategirako

**Urriaren 5etik 20ra**

- Obren garraioa berrestea
- Aseguruak
- Aretoaren prestakuntza teknikoa
- Muntaketaren definizioa

**Urriaren 25etik azaroaren 3ra**

- Obrak jasotzea
- Erakusketa muntatzea

## 3. PLAZO DE EJECUCIÓN DEL PROYECTO SELECCIONADO PARA LA EXPOSICIÓN

El período de ejecución del proyecto seleccionado se desarrollará entre el 1 de septiembre y el 25 de noviembre de 2026, conforme al cronograma planteado por Getxo Kultura:

**Antes del 21 de septiembre (45 días antes)**

- Entrega de textos curatoriales
- Textos de obras y biografía
- Selección definitiva de obras
- Material para catálogo (imágenes en alta resolución)

**21 de septiembre – 5 de octubre**

- Diseño gráfico del catálogo
- Correcciones de textos
- Maquetación final
- Envío a Getxo Kultura para imprenta

**5 – 20 de octubre**

- Confirmación de transporte de obras
- Seguros
- Preparación técnica de la sala
- Definición del montaje

**25 de octubre – 3 de noviembre**

- Recepción de obras
- Montaje de la exposición

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

- Aretoko argiztapena berrikustea
- Katalogo inprimatuak jasotzea
- 2026ko azaroaren 5erako erakusketaren inaugurazioa bermatzeko beharrezkoa den beste edozein zeregin egitea.

**ERAKUSKETAN ZEHAR (azaroaren 5ean)**

- Inaugurazio ofiziala
- Prentsa eta jendearentzako arreta
- Bisiten jarraipena
- Balizko jarduera paraleloak (bisita gidatuak, topaketak eta aurkeztutako bitartekotza-plana gauzatzea etab.)

**ONDORENGO EKINTZAK (azaroaren 25etik 27ra)**

- Erakusketa desmuntatzea
- Obrak enbalatzea
- Obrak itzultzea/garraiatzea

## 4. HARTZAILEAK

Egonaldi-bekak edozein pertsona fisikok (18 urtetik gorakoak) edo juridikok jaso ahal izango ditu, banakako obra edo talde eskatzailearena aurkeztuta.

Bekak banaka edo taldeka jaso ahal izango dira. Taldeka parte hartzen bada, pertsona bat izendatu beharko da ordezkari gisa eskaera aurkezteko eta Getxo Kulturarekin solaskide moduan aritzeko. Kasu horretan solaskide eta kudeatzaile moduan jarduteko bakarrik izango da ordezkaria, ez beka ezta dirulaguntza bera kobratzeko ere; izan ere, taldeko kide bakoitza onuraduna izango da, eta, beraz, laguntza zati berdinetan banatuko da.

## 5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Beka jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek:

- Gehienez hamabost (15) orrialdeko **lan-proiektu** bat. Hor, honako hau jasoko da: **GETXOARTE EGONALDI BEKA 2026**, eta zera izango du barne:
    - Izenburua

- Revisión de iluminación en sala
- Recepción de catálogos impresos
- Realización de cualquier otra tarea necesaria para garantizar la inauguración de la exposición para el 5 de noviembre de 2026.

**DURANTE LA EXPOSICIÓN (5 de noviembre)**

- Inauguración oficial
- Atención a prensa y público
- Seguimiento de visitas
- Posibles actividades paralelas (visitas guiadas, encuentros y ejecución del plan de mediación presentado, etc.)

**ACCIONES POSTERIORES (del 25 al 27 de noviembre)**

- Desmontaje de la exposición
- Embalaje de obras
- Devolución / transporte de obras

## 4. PERSONAS DESTINATARIAS

Podrá optar a las becas cualquier persona física (mayor de 18 años) o jurídica ya sea con obra individual o del colectivo solicitante.

Se podrá optar a las becas individualmente o en grupo. En caso de participar en grupo, deberá designarse una persona como representante para la presentación de la solicitud e interlocución con Getxo Kultura. En tal caso, esta persona sería la representante sólo a efectos de interlocución y gestión, no de cobro de la propia beca y ayuda, ya que cada integrante del equipo tendrá la condición de persona beneficiaria, y por tanto la ayuda se repartirá en partes iguales.

## 5. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Para poder optar a la beca, las personas participantes deberán presentar:

- Un **proyecto de trabajo** no superior a quince páginas (15), haciendo constar: **BECA DE RESIDENCIA GETXOARTE 2026,** que incluirá:
    - Título

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

- Helburuak
- Laburpen teorikoa
- Proposamena eta garapen formala (ulertzeko behar den informazio guztiarekin)
- Proiektua landu nahi duen kolektibo espezifikoaren deskribapena
- Lan egutegia
- Aurreko lanen dosierra
- Beka lortu nahi du(t)en pertson(ar)en curriculuma.

Taldean parte hartuz gero, argi eta garbi adierazi beharko da hori, eta taldea osatzen duten pertsonak identifikatu beharko dira.

Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkez daitezke.

- Izena emateko inprimakia beteta, www.getxo-kultura.eus webgunean ere eskuragarri.

- Parte-hartzaileen NANaren kopia.

Ofizioz eskatuko da Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, salbu eta interesdunak berariazko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu. Zergak Estatuko Ogasunean ordaindu behar baditu, administrazio horrekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Ofizioz eskatuko zaio Gizarte Segurantzari erakunde horrekin egunean egotearen ziurtagiria, salbu eta interesdunak esanbidezko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.

Ofizioz eskatuko zaio Getxoko udalari erakunde horrekin egunean egotearen ziurtagiria, salbu eta interesdunak esanbidezko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.

Getxo Kulturak beretzat gordetzen du egonaldi

- Objetivos
- Breve aproximación teórica
- Propuesta y desarrollo formal (con toda la información necesaria para su comprensión).
- Descripción del colectivo específico con el que quiere trabajar el proyecto.
- Calendario de trabajo.
- Dossier de trabajos anteriores.
- Currículo de la/s persona/s que optan a la beca.

En caso de participar en grupo, deberá indicarse claramente esta circunstancia e identificar las personas integrantes del mismo.

Los proyectos podrán ser presentados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

- Formulario de inscripción cumplimentado, disponible también en www.getxo-kultura.eus.

- Copia del DNI de las personas participantes.

Se requerirá, de oficio, certificado de estar al corriente de sus obligaciones con la Hacienda Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, Gipuzkoa o Álava salvo que la persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado. En el caso de que deba tributar en la Hacienda estatal, deberá presentar el correspondiente certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con esta administración.

Se requerirá, de oficio, a la Seguridad Social certificado de estar al corriente con esta entidad, salvo que la persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado.

Se requerirá, de oficio, al Ayuntamiento de Getxo certificado de estar al corriente con esta entidad, salvo que la persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado.

Getxo Kultura se reserva el derecho a declarar

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

bekak osorik edo zati batean eman gabe uzteko eskubidea, eta, hala badagokio, azken erakusketa bera, aurkeztutako proiektuak positiboki baloratzen ez badira.

desierta las becas de residencia total o parcialmente y en su caso la propia exposición final en caso de que los proyectos presentados no sean valorados positivamente.

## 6. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskabideak Getxo Kulturaren egoitza elektronikoaren bidez (https://sede.getxo-kultura.eus/ (Deialdiak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren gainerako bitartekoen bidez aurkeztuko dira.

Informazioa eta eskabideak udal webgunean ere eskuratu ahalko dira (www.getxo-kultura.eus).

Prozedura honekin lotutako kontsultak egin ahal izango dira helbide elektroniko honetan: getxoarte@getxo.eus.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Eskaerak nahitaez bete beharko dira deialdi honen eranskinetan agertzen den eskabide normalizatuan.

Eskaerak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira eta artxibatu egingo dira, besterik gabe.

Beka hauetara aurkezteak deialdi hau osorik onartzea dakar. Bertan ezarritakoa ez betetzeak egonaldia eta dagokion bekaren ordainketa etetea ekar dezake, baita jasotako laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzultzea ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada.

Itzuli beharreko zenbatekoa, osorik edo zati batean, zehazteko, proportzionaltasun eta

## 6. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Las solicitudes se presentarán a través de la sede electrónica de Getxo Kultura https://sede.getxo-kultura.eus/ (Convocatorias) o de los restantes medios a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La información y solicitudes estarán también disponibles en la Web municipal (www.getxo-kultura.eus).

Podrán realizarse consultas relacionadas con este procedimiento en el siguiente email: getxoarte@getxo.eus.

El plazo para la presentación será de un mes y comenzará a computar a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Las solicitudes se cumplimentarán obligatoriamente en la instancia normalizada que figura en los anexos de la presente convocatoria.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

La presentación a estas Becas presupone la aceptación en su totalidad de la presente convocatoria. El incumplimiento de lo establecido ella podría suponer la interrupción de la residencia y del pago de la beca correspondiente, incluso el reintegro de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes, si concurre alguno de los supuestos recogidos en el artículo 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

ekitate printzipioak hartuko dira kontuan. Horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak hartuko dira kontuan.

cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

## 7. ESLEITZEKO PROZEDURA

Erregimena norgehiagoka-araubidea da; aurkeztutako proiektuak jarraian zehazten diren balorazio-irizpideen arabera konparatuko dira eta puntuaziorik altuena lortu duten hiru proiektuei emango zaie beka.

Balorazio-irizpide hauek ezarri dira, gehienez ere 25 puntu lortzeko:

| GETXOARTE BEKAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioa: 25 puntu |
|---|---|
| 1. Proiektuaren interesa Getxori egiten dion ekarpen baliotsuagatik | Gehienez 4 puntu |
| 2. Proiektuaren interesa ikerketa-lanari egiten dion ekarpenarengatik | Gehienez 4 puntu |
| 3. CV eta hautagaiaren eskarmentua | Gehienez 4 puntu |
| 4. Bertako sortzaileek aurkeztutako proposamena | Gehienez 1 puntu |
| 5. Bitartekaritza proposamena (kolektiboa eta metodologia) | Gehienez 2 puntu |
| 6. Proiektuaren bideragarritasuna (proiektua egin ahal izatea) | Gehienez 3 puntu |
| 7. Helburuen eta proposatutako metodologiaren arteko koherentzia | Gehienez 3 puntu |
| 8. Gaia ezagutzea | Gehienez 1,50 puntu |
| 9. Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna | Gehienez 1 puntu |
| 10. Genero ikuspegia | Gehienez 1,50 puntu |

Ekoizteko eta erakusteko diruz lagunduko den proiektua hautatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

## 7. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

El régimen es el de concurrencia competitiva, se compararán los proyectos presentados en función de los criterios de valoración recogidos a continuación y se otorgarán las becas a los tres proyectos que hayan obtenido mayor puntuación.

Se establecen los siguientes criterios de valoración en una puntuación máxima de 25 puntos:

| CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS BECAS GETXOARTE | Máxima puntuación: 25 puntos |
|---|---|
| 1. Interés del proyecto por el aporte de valor que realiza al municipio | Hasta 4 puntos |
| 2. Interés del proyecto por su aporte al trabajo de investigación | Hasta 4 puntos |
| 3. CV y experiencia del/a candidato/a | Hasta 4 puntos |
| 4. Propuesta presentada por creadores y creadoras locales | Hasta 1 punto |
| 5. Propuesta de mediación (colectivo y metodología) | Hasta 2 puntos |
| 6. Viabilidad del proyecto (que el proyecto pueda llevarse a cabo) | Hasta 3 puntos |
| 7. Coherencia entre los objetivos y la metodología planteada | Hasta 3 puntos |
| 8. Conocimiento del tema | Hasta 1,50 puntos |
| 9. Claridad y concreción en la propuesta | Hasta 1 punto |
| 10. Perspectiva de género | Hasta 1,50 puntos |

Los criterios de valoración para la selección del proyecto subvencionado para su producción y exhibición serán los siguientes:

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

| GETXOARTISTA SARIA BALORATZEKO IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioa: 25 puntu |
|---|---|
| 1. Erakusketa-proiektuaren kontzeptualizazioa eta edukia. | Gehienez 5 puntu |
| 2. Planoaren gaineko antolaketa grafikoa eta erakutsi beharreko obra multzoaren kalitatea | Gehienez 5 puntu |
| 3. Bitartekaritza Plana | Gehienez 4 puntu |
| 4. Egonaldian egindako ikerketa lana | Gehienez 3 puntu |
| 5. Proiektuaren bideragarritasuna (proiektua gauzatu ahal izatea) | Gehienez 3 puntu |
| 6. Euskararen erabilera eta sustapena proiektu osoan | Gehienez 3 puntu |
| 7. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapen-maila proiektuan | Gehienez 2 puntu |

| CRITERIOS DE VALORACIÓN DEL PREMIO GETXOARTISTA SARIA | Máxima puntuación: 25 puntos |
|---|---|
| 1. Conceptualización y contenido del proyecto expositivo. | Hasta 5 puntos |
| 2. Disposición gráfica sobre plano y calidad del conjunto de obras a exponer | Hasta 5 puntos |
| 3. Plan de Mediación | Hasta 4 puntos |
| 4. Labor de investigación realizada durante la residencia | Hasta 3 puntos |
| 5. Viabilidad del proyecto (que el proyecto pueda llevarse a cabo) | Hasta 3 puntos |
| 6. Uso y promoción del euskera en la totalidad del proyecto | Hasta 3 puntos |
| 7. Grado de promoción de la igualdad entre hombres y mujeres en el proyecto | Hasta 2 puntos |

## 8. EPAIMAHAIA

Beka emango zaien hiru pertsonak eta ekoitzi eta erakusteko diruz lagundutako proiektua aukeratuko dituen epaimahaia, honako hauek osatuko dute:

- Getxo Kulturaren izenean eta lehendakari gisa, zuzendari nagusiak, **XABIER FIDEL PAYA RUIZ**ek. Ordezkoa, Getxo Kulturako kultur teknikaria.
- **ALICIA FERNÁNDEZ LÓPEZ**ek (Rekalde Aretoa). Ordezkoa, erakusketetan aditua den pertsona.
- **CLARA MONTERO TELLERIA**k (Tabakalera). Ordezkoa, erakusketetan aditua den pertsona.
- **LUZIA MARTIN RUIZ**ek (Getxo Kultura). Ordezkoa, Getxo Kulturako teknikaria.
- Idazkari gisa, **NEREA ISASI**

## 8. JURADO

El jurado que seleccione las tres personas a las que se les otorgará la beca y el proyecto subvencionado para su producción y exhibición estará formado por:

- En nombre de Getxo Kultura y en calidad de presidente, el director general, **XABIER FIDEL PAYA RUIZ**. Suplente, un/a técnico/a de cultura de Getxo Kultura.
- **ALICIA FERNÁNDEZ LÓPEZ** (Rekalde Aretoa). Suplente, una persona experta en exposiciones.
- **CLARA MONTERO TELLERIA** (Tabakalera). Suplente, una persona experta en exposiciones.
- **LUZIA MARTIN RUIZ** (Getxo Kultura). Suplente, un/a técnico/a de Getxo Kultura.
- Secretaria: **NEREA ISASI KORKOSTEGI**,

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

**KORKOSTEGI**k, Getxo Kulturako administratiboak. Ordezkoa, Getxo Kulturako komunikazio, kultura eta aisialdi teknikari laguntzailea.

administrativa de Getxo Kultura. Suplente, la técnica auxiliar de comunicación, cultura y ocio de Getxo Kultura.

Epaimahaiari dagokio eskaerak ebaluatzea kasu bakoitzeko hautaketa-irizpideen arabera.

Le corresponde al jurado evaluar las propuestas en base a los criterios de selección de cada caso.

Epaimahaikide bakoitzarentzat (Getxo Kulturako langileentzat izan ezik) seiehun euroko (600,00 €) ordaina ezarri da, joan-etorrietan eta balorazio-bileretan sortutako gastuengatik kalte-ordain gisa.

Se establece una dieta de seiscientos euros (600,00 €) para cada uno de los miembros del jurado como indemnización por los gastos generados en desplazamientos y reuniones de valoración, a excepción del personal de Getxo Kultura.

## 9. GETXOARTE EGONALDI BEKAREN ZENBATEKOA

## 9. IMPORTE DE LA BECA DE RESIDENCIA GETXOARTE

Beka bakoitza bost mila eurokoa izango da (5.000 €). Beraz, hamabost mila euroko (15.000 €) aurrekontua ezarri da hiru bekak ordaintzeko eta hamar mila eurokoa (10.000 €) ekoitzi eta erakusteko dirulaguntza osagarrirako.

La dotación económica de la Beca será de cinco mil euros (5.000 €). Por tanto, se establece un presupuesto total de quince mil euros (15.000 €) para cubrir las tres becas y diez mil euros (10.000 €) para la ayuda complementaria a la producción y exhibición.

Bekak eta saria Getxo Kultura TEAren aurrekontuaren kontura ordainduko dira, aurrekontu-sail honen barruan: 00300/33400/4820000 Sariak, Bekak.

El abono de las becas y del premio se realizará con cargo al presupuesto del OAL Getxo Kultura. Partida presupuestaria de imputación: 00300/33400/4820000 Becas, Premios.

## 10. EBAZPENA ETA ORDAINKETA

## 10. RESOLUCIÓN Y PAGO

Deialdi honetan jasotako bekak eta laguntza emateko organo instruktorea Getxo Kultura administrazio unitatea izango da.

El órgano instructor para la concesión de las becas y ayuda recogidas en la presente convocatoria será la unidad administrativa Getxo Kultura.

Ebazteko eskumena izango duen organoa erakundeko presidentea izango da, arestian aipatutako epaimahaiak proposatuta.

El órgano competente para resolver será la Presidenta del Organismo, a propuesta del jurado referido anteriormente.

Proiektua ekoizteko eta erakusteko beka eta laguntza ekonomikoa emateko unean ordainduko dira, proiektua garatzeko beharrezko finantzaketatzat jotzen baitira, 38/2003 Legearen 34.4 artikuluaren arabera.

El pago de la beca y de la ayuda económica para la producción y exhibición del proyecto se realizará en el momento de su otorgamiento, toda vez que se consideran financiación necesaria para el desarrollo del proyecto, de conformidad con el artículo 34.4 de la Ley 38/2003.

Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira eta

Las subvenciones concedidas se harán públicas mediante su envío a la BDNS y

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

www.getxo-kultura.eus webgunean publikatuko.

publicación en la página web www.getxo-kultura.eus.

## 11. IKERKETAREN ZERBITZURA JARTZEN DIREN BALIABIDEAK

Ikerketa garatzen den bitartean, uneren batean edo gehiagotan, beharrezkoa izango da udalerriak dituen baliabideetako batean oinarritzea.

Getxo Kulturak beharrezko kudeaketak egingo ditu hautatutako pertsonaren/pertsonen eskura jartzeko proiektua Romo Kultur Etxeko guneren batean garatzeko beharrezkoak diren baliabide espazialak, proiektuaren beharren arabera.

## 11. RECURSOS QUE SE PONEN AL SERVICIO DE LA INVESTIGACIÓN

En el marco del desarrollo de la investigación, en alguno o varios momentos será necesario apoyarse en alguno de los recursos de que dispone el municipio.

Desde Getxo Kultura se realizarán las gestiones necesarias para poner a disposición de la persona o personas seleccionadas los recursos espaciales necesarios para desarrollar el proyecto en algún lugar de la Romo Kultur Etxea.

## 12. ERAKUSKETA ARETOAREN BALDINTZAK

**Aretoan edozein aldaketa** eginez gero (hormak margotzea, zuloak egitea, etab.), pertsonak aretoa hasierako egoerara itzuli beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, lan horrek eragindako kostu guztiak bere gain hartuko ditu. Aretoa erabiltzetik eratorritako edozein akats eskatzailearen erantzukizuna izango da, eta konponketaz arduratuko da.

**Kartelak edota itsasgarriak**: kalteak saihesteko, ezin da kartelik/itsasgarririk itsatsi ez zutabeetan ez erakusketa-aretoko beste edozein azaleratan.

**Altzariak RKEko erakusketa aretoan**: Getxo Kulturak ez du erakusketetarako elementurik hornitzen, jarraian zehazten direnak izan ezik, beti erabilgarritasun aukeren arabera:

- Beira-arasa erakusketaria, 100 x 100 x 30 cm-ko kristalarekin (zabalera x hondoa x altuera) kubo beltzaren gainean.
- Kubo zuriak (kontsultatu neurriak eta erabilgarritasuna).
- Bankua.
- 55’’-ko gurpildun telebista eramangarria.
- Erakusketa-panel zatitzaileak.
- Koadroak zintzilikatzeko sistema, pita-

## 12. CONDICIONES DE LA SALA DE EXPOSICIONES

En caso de cualquier **modificación de la sala** (pintar paredes, realizar agujeros, etc.), la persona deberá devolver la sala a su estado inicial, haciéndose cargo, si fuera necesario, de todos los costes derivados de dicha labor. Cualquier desperfecto derivado del uso de la sala será responsabilidad de la persona solicitante, haciéndose cargo de su reparación.

**Carteles y/o adhesivos**: para evitar desperfectos, no se pueden pegar carteles/adhesivos en las columnas ni en ninguna otra superficie de la sala de exposiciones.

**Mobiliario en la sala de exposiciones de RKE**: Getxo Kultura no provee de elementos expositores, a excepción de los que se detallan a continuación, sujetos siempre a disponibilidad:

- Vitrina expositora con cristal de 100 x 100 x 30 cm (ancho x fondo x alto) sobre cubo negro.
- Cubos blancos (consultar medidas y disponibilidad).
- Banco.
- TV portátil con ruedas de 55’’.
- Paneles expositivos divisorios
- Sistema cuelga cuadros, con hilo de pita.

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

hariarekin.

RKEko erakusketa-aretoak alarma-sistema bat du, Getxoko Udaltzaingoari konektatua, zentroa itxita dagoen orduetan aktibo dagoena. Erakusketa-ordutegietan, erakusketa-aretora sartzeko atea irekita egongo da baldin eta sarreran atezain bat, laguntzaile bat edo zentroko beste langile bat, artista bera edo hark eskuordetutako pertsona bat badago.

La sala de exposiciones de RKE cuenta con sistema de alarma, conectado a la Policía Municipal de Getxo, que se encuentra activo durante las horas en que el centro permanece cerrado. Durante los horarios de exhibición, la puerta de acceso a la sala de exposiciones sólo permanecerá abierta si se encuentra en la entrada un conserje, un colaborador u otro personal del centro, el propio artista o persona en quien delegue.

## 13. HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN TITULARR(AR)EN BETEBEHARRAK

## 13. OBLIGACIONES DEL/LA TITULAR/ES DEL PROYECTO SELECCIONADO

Hauek izango dira hautatutako pertsonen betebeharrak:

- Proiektuaren ekoizpena eta erakusketa RKE aretoan.
- Azken **ikerketa - txosten bat** aurkeztea **2026ko abenduaren 31**a baino lehen. Txosten horrek gauzatze-prozesua **deskribatzen duen memoria** eta emaitzen balorazioa jasoko ditu. Planteatutako helburuen betetze-maila eta izandako gizarte-eragina ebaluatuko ditu. Memoriak prozesuaren faseei eta parte-hartzaileek egindako balorazioei buruzko argazkiak jaso beharko ditu. Bai proiektuaren garapenean zein bitartekaritza-ekintzetan parte hartu duten emakume eta gizonezkoen portzentaia zehaztuko da.
- Bere eskura jartzen den eremua erabiltzeko barne arauak betetzea (ordutegiak, segurtasun-protokoloak, materialaren erabilera, instalazio erabilgarriak eta abar).
- Programaren babespean antola daitezkeen komunikazio eta bitartekaritza ekintzetan parte hartzea (ate irekien jardunaldiak, prentsaurrekoak, hitzaldiak, topaketak...).
- Ikerketan parte hartzen duten adingabeen legezko ordezkarien baimenak biltzea,

Las personas seleccionadas estarán obligadas a:

- La producción y exhibición del proyecto en la sala RKE.
- Presentar un informe final de investigación, en cualquier caso, antes del **31 de diciembre de 2026**. Este informe contendrá una **memoria descriptiva** del proceso de realización, así como la valoración de los resultados, evaluando el grado de cumplimiento de los objetivos planteados y el impacto social producido. La memoria deberá contener fotografías relativas a las diferentes fases del proceso y de su valoración por parte de los participantes. Se indicará el porcentaje de mujeres y hombres que han participado tanto en la ejecución del proyecto como en las acciones de mediación.
- Cumplir las normas internas para la utilización del espacio que se ponga a su disposición (horarios, protocolos de seguridad, utilización del material, instalaciones disponibles, etc.).
- Participar en las acciones de comunicación y mediación que pudieran organizarse al amparo del programa (jornadas de puertas abiertas, ruedas de prensa, charlas, encuentros…).
- Recabar los permisos de las personas que ostenten la representación legal de las

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 24

esku-hartzeak hala eskatzen badu.

- Saria jaso eta gero argitaratutako material guztietan eta egindako agerraldi publiko guztietan, Getxo Kulturaren laguntza eta erakundearen logoa jaso beharko dira.

- Programa garatzean hartzen diren irudiak (argazkiak, bideoak eta abar) informazio-, dokumentazio- edo sustapen-jardueretan erabiltzeko baimena ematea.

- Eskatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen altzari edo erakusketa-elementu guztiak aurkeztu ahal izango ditu, eta horien lekualdaketaz, muntaketaz, kontserbazioaz, desmuntaketaz eta erretiratzeaz arduratuko da.

- Erakusketaren muntaketa artistak edo hark eskuordetzen duen pertsonak egingo du, baina ezinbestekoa da muntaiaren plana (krokisa eta kronograma) behar besteko aurrerapenaz aurkeztea, berrikusi eta oniritzia emateko. Ezinbestekoa da erakusketa muntatzeko ordutegia Getxo Kulturarekin koordinatzea; izan ere, muntaketa erakusketa-guneak dauden eraikinen irekiera-ordutegiaren mende egon liteke, beste zerbitzu batzuk eta erabiltzaileak baitaude.

- Laguntzaren justifikazioa aurkeztea, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera.

## 14. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Onuradunen betebeharretako bat jasotako dirulaguntza zertarako erabili den justifikatzea izango da.

Diruz lagundutako ekintzak gauzatu eta Getxo Kulturan justifikatu beharko dira, **justifikazio-kontu sinplifikatua**ren bidez; proiektuaren kostu osoaren % 100 justifikatu beharko da, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako

personas menores de edad que participen en la investigación siempre que su intervención así lo requiera.

- En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar la ayuda de Getxo Kultura así como el logo de la entidad.

- Prestar su consentimiento para que las imágenes que les sean tomadas (fotos, vídeos, etc.) dentro del desarrollo del programa puedan ser utilizadas en actividades de información, documentación o promoción.

- La persona solicitante podrá aportar todo el mobiliario o elementos expositivos que considere necesarios, haciéndose cargo de su traslado, montaje, conservación, desmontaje y retirada.

- El montaje de la exposición correrá a cargo del/la artista o persona en quien delegue, pero es condición indispensable que presente un plan del montaje (croquis y cronograma) con suficiente antelación para su revisión y visto bueno. Es imprescindible coordinar el horario de montaje de la exposición con Getxo Kultura ya que podría condicionar el montaje al horario de apertura de los edificios en los que se encuentran los espacios expositivos, dado que los mismos conviven con otros servicios, y usuarios y usuarias.

- Presentar la justificación de la ayuda, según lo dispuesto en el siguiente apartado.

## 14. JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Una de las obligaciones de las personas beneficiarias será la de la justificación del destino dado a la subvención recibida.

Las acciones subvencionadas deberán realizarse y justificarse ante Getxo Kultura mediante **cuenta justificativa simplificada**, debiendo justificarse el 100 % del coste total de proyecto, en los términos previstos en la

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 24

baldintzetan. Dirulaguntza ematen duen organoak, laginketa-tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak egiaztatuko ditu, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela ziurtatzeko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen dutenak. Horretarako, hautatutako gastu-egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

normativa aplicable. El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados. El contenido de la documentación a presentar es el siguiente:

- Jarduerak sortutako diru-sarreren eta gastu guztien balantzea.
- Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hornitzailearen eta agiria identifikatuz, zenbatekoa, egin zen data, eta hala badagokio, ordainketaren data adieraziz.
- Dirulaguntza eman zaion jarduera finantzatu duten beste diru-sartze edo dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

- Balance de todos los ingresos y gastos originados por la actividad.
- Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del proveedor y del documento, su importe, fecha de emisión y en su caso fecha de pago.
- Detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntza justifikatzeko epearen barruan benetan ordaindu direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuak erosteko kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango.

Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que, de manera indubitada, respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y hayan sido efectivamente pagados dentro del plazo de justificación de la subvención. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Catering eta ordezkaritza gastuak, otorduak eta antzekoak zuzenean lotuta badaude diruz lagundutako proiektuarekin, ez da onartuko justifikazioan gastu horiek proiekturaren kostuaren % 15 gainditzea.

En caso en que los gastos de catering y representación, comidas y similares tengan relación directa con el proyecto subvencionado, no se admitirá que, en la justificación, estos gastos superen el 15 % del coste del proyecto.

Zeharkako gastuak diruz lagundu daitezkeenak izango dira, hau da, proiektuarekin zuzenean lotutako administrazio- eta kudeaketa-gastuak, identifikatu, formulatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko. Zeharkako kostuen ehunekoa ezingo da eskatutako dirulaguntzaren % 5 baino handiagoa izan.

Serán gastos subvencionables los costes indirectos, considerando éstos como los gastos administrativos y de gestión directamente vinculados al proyecto para su identificación, formulación, seguimiento y evaluación. El porcentaje de costes indirectos no podrá exceder del 5 % de la subvención solicitada.

Langile-gastuen kasuan, dagozkion nominak edo soldata-ordainagiriak aurkeztu beharko dira, eta argi eta garbi adierazi beharko dira izen-abizenak, NANa, dagokion hilabetea,

En el caso de gastos de personal deberán acompañarse las nóminas o recibos salariales correspondientes, que deberán expresar claramente el nombre y los dos apellidos, DNI,

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

zenbateko gordina, dagozkion deskontuak eta zenbateko likidoa, bai eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-buletinak ere. Nominak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta Langile Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion zenbatekoak ordaindu izanaren egiaztagiria erantsi beharko da.

Horretarako, administrazioak agiri horiek bidaltzeko eskatu ahal izango die hautatutako onuradunei.

Artistak deialdi honetako 2. eta 3. puntuetan deskribatutako lanetan emandako denbora eta dedikazioa, lau mila bostehun eurotan (4.500,00€) eurotan aurreikusita, bekari lotuta daude, eta ez da justifikaziorik beharko. Zenbateko hori gainditu ahal izango da beste profesional edo artista batek egiten baditu lan horietako batzuk, baina, kasu horretan, gainerako gastuak bezala justifikatu beharko da.

Justifikatu beharreko kopurua: sortutako gastuen % 100 justifikatu beharko da (aurreko paragrafoan jasotakoa izan ezik), eta ez Getxo Kulturak emandako kopurua bakarrik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen bezala.

Justifikazioa aurkezteko gehieneko epea 2026ko abenduaren 31 izango da.

Getxo Kultura beretzat gordetzen du erakunde onuradunari beharrezkotzat jotzen dituen finantza-egiaztapeneko jarduketa guztiak egiteko ahalmena, barne- edo kanpo-auditoriak egitea barne.

## 15. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Deialdi honetako bekak eta dirulaguntza bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza, beka edo laguntzekin, baina ez dira bateragarriak izango Getxo Kulturako dirulaguntza, sari edo bestelako deialdiekin.

Nolanahi ere, dirulaguntzen eta beste iturri

el mes al que correspondan, señalándose la cuantía bruta, los descuentos que correspondan y el importe líquido, así como los boletines de cotización de la Seguridad Social. Deberá de adjuntarse justificante de pago de las nóminas, de las cotizaciones de la Seguridad Social y del ingreso de las cantidades correspondientes al Impuesto sobre la Renta de las Personal Físicas.

Para ello, la administración podrá requerir a los beneficiarios seleccionados, para que remitan la citada documentación.

El tiempo y trabajo de dedicación del artista a las labores descritas en los puntos 2 y 3 de esta convocatoria, estimado en cuatro mil quinientos euros (4.500,00€), se encuentra vinculado a la beca y no precisará de justificación. Dicha cuantía podrá superarse si es otro/a profesional o artista quien realiza algunas de esas labores, pero en tal caso, deberá justificarse como el resto de los gastos.

Cantidad a justificar: se deberá justificar el 100 % del coste total del proyecto subvencionado (a excepción de lo indicado en el párrafo anterior) y no sólo la cantidad concedida por Getxo Kultura, tal y como dispone la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El plazo máximo para la presentación de la justificación será el 31 de diciembre de 2026.

Getxo Kultura se reserva la potestad de someter a la entidad beneficiaria a cuantas actuaciones de comprobación financiera considere necesarias, incluida la realización de auditorías internas o externas.

## 15. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

Las becas y subvención previstas en esta convocatoria serán compatibles con subvenciones, becas o ayudas de otras administraciones o entes públicos o privados, pero en ningún caso lo serán con las subvenciones, premios o demás convocatorias de Getxo Kultura.

En cualquier caso, el montante de la

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 24

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

batzuen bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoak ezin izango du gainditu proiektu bekadunaren edo sarituaren kostua.

financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del proyecto becado o premiado.

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, pertsona edo erakunde onuradunek Getxo Kulturari jakinarazi beharko diote proiektu bererako beste dirulaguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, dagokion jakinarazpena jaso eta hilabetetik beherako epean.

Las personas o entidades beneficiarias tienen la obligación de comunicar a Getxo Kultura la obtención para el mismo proyecto de otras subvenciones o ayudas financieras concedidas por otras Administraciones Públicas con posterioridad a la resolución de concesión en un plazo inferior al mes desde la recepción de la notificación correspondiente.

## 16. ITZULKETA

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluaren 1. paragrafoan ezarritako baldintzetan.

Osorik edo hein batean itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, edozein kasutan proportzionaltasun eta ekitate printzipioei jarraituko zaie; horretarako, kasu bakoitzaren inguruabarrei erreparatuko zaie.

Itzultzea eskatzen duen ebazpena dirulaguntzak ematen dituen organoak egingo du.

Itzultzeko espedientea Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan ezarritako prozedura-arauen araberakoa izango da. Horretan, interesdunari entzunaldia emango zaio 15 egun balioduneko epe barruan.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. eta IV. tituluetan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan xedatutakoa ere beteko da.

## 16. REINTEGRO

El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente traerá como consecuencia la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, junto al interés de demora, en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención.

El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título IV de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el mismo se dará trámite de audiencia al interesado por el plazo de 15 días hábiles.

También se atenderá a lo dispuesto en el título III y IV del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

## 17. BESTE BATZUK

## 17. OTROS

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
Getxo Kultura@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Deialdian aurreikusten ez diren egoeretan, epaimahaiak erabakiko du.

Deialdi hau atal hauetan guztietan ezarritakoaren arabera arautzen da, Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorrean adierazitakoaz gain (BAO, 2026ko otsailaren 7koa), zehazki bere lehen xedapen gehigarrian.

Cualquier situación no prevista en la convocatoria será resuelta por el jurado.

La presente convocatoria se regula por lo establecido en estos apartados, además de lo señalado en la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos (BOB de 7 de febrero de 2026), disposición adicional primera.

## 18. DATU BABESA

Zure datuak “DIRULAGUNTZAK” tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxo Kultura da eta helburua du Getxo Kulturak onartutako dirulaguntzak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta diru laguntza bat esleitzea da. Datuak arduradunarekin zuzeneko lotura duten erakundeei eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak.

## 18. PROTECCIÓN DE DATOS

Sus datos se incorporan al tratamiento “SUBVENCIONES” del que es responsable Getxo Kultura y que tiene como finalidad gestionar las subvenciones que aprueba Getxo Kultura. La base jurídica del tratamiento es el consentimiento y el otorgamiento de una subvención y podrán ser cedidos a organizaciones directamente relacionadas con la persona responsable. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus (delegada de protección de datos) incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos.



Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

# VII. GETXOARTE EGONALDI BEKA DEIALDIA
# ESKAERA
VII CONVOCATORIA DE LAS BECAS RESIDENCIA GETXOARTE
SOLICITUD

Euskadi 2006

| **ESKATZAILEA** / SOLICITANTE | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak edo sozietate-izena**<br>Nombre y apellidos o razón social | | |
| **NAN/IFZ**<br>DNI/NIF | **Helbidea**<br>Dirección | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C.P. | ☏ |
| 📱 | @ | |

| **ORDEZKARIA** / REPRESENTANTE | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak**<br>Nombre y apellidos | | |
| **NAN**<br>DNI | **Helbidea**<br>Dirección | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C.P. | ☏ |
| 📱 | @ | |

**ESKAERA** / SOLICITUD

**GETXOARTE EGONALDI BEKArako zazpigarren deialdiaren berri izan dut. Deialdia bere osotasunean onartzen dut eta lehiaketan onartua izateko eskatzen dut.**

He tenido conocimiento de la séptima convocatoria de la BECA RESIDENCIA GETXOARTE, que acepto en todos sus extremos, y solicito ser admitido/a al citado concurso.

**Aitortzen dut** / Declaro**:**

- ☐ **Zerga eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean izatea**
- ☐ Estar al corriente con mis obligaciones en materia fiscal y de seguridad social
- ☐ **Ez nago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan ezarritako debekuetan.**
- ☐ No hallarme incurso/a en ninguna de las causas de prohibición establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el art. 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

**Horretarako, deialdian eskatutako dokumentazioa aurkezten dut:**
A tal efecto, presento la documentación exigida en la convocatoria:

- ☐ **Lan proiektua** / Proyecto de trabajo
- ☐ **NANaren kopia** / Copia del DNI

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 24

## DATUAK KONTSULTATZEKO EDO EGIAZTATZEKO AURKAKOTASUNA
OPOSICIÓN PARA LA CONSULTA O VERIFICACIÓN DE DATOS

Getxo Kultura tokiko erakunde autonomoak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden datu hauei buruz.

Egiaztapen horren **aurka bazaude**, **markatu X** batez eta adierazi **zergatik** egiten duzun kontra eta **aurkeztu dokumentazioa**.

**Getxoko Udala**

☐ Bizileku-erroldaren kontsulta.

☐ Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.

**Gizarte-Segurantzako Diruzaintza Orokorra (GSDN)**

☐ GSDOrekin ordainketa egunean izatearen kontsulta.

**Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasuna**

☐ BFA, GFA eta AFArekiko betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

El organismo autónomo local Getxo Kultura va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los siguientes datos que obren en poder de la Administración.

Si usted **se opone** a dicha verificación **marque con una X** e indique el **motivo** por el que se opone y **deberá aportar la documentación**.

**Ayuntamiento de Getxo**

☐ Consulta del padrón domiciliario

☐ Consulta de estar al corriente en las obligaciones tributarias

**Tesorería General de la Seguridad Social (TGSS)**

☐ Consulta de estar al corriente de pago con la TGSS.

**Hacienda Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava**

☐ Consulta de estar al corriente de sus obligaciones con la DFB, DFG y DFA.

| **AURKAKOTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA** / JUSTIFICACIÓN A LA OPOSICIÓN | |
|---|---|
| **Aurkakotasunaren kasuan, beharrezkoa da justifikatzea aurka egotearen arrazoiak (Datuak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua eta Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. artikulua).** | En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de la misma (art.18 de la Ley orgánica 3/2018 de Protección de Datos y garantía de los derechos digitales y art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos). |
| | |

**Getxo(n), 2026ko**______________________________________________

**Sinadura** / Firma

Zure datuak “DIRULAGUNTZAK” tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxo Kultura da eta helburua du Getxo Kulturak onartutako dirulaguntzak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta dirulaguntza bat esleitzea da. Datuak arduradunarekin zuzeneko lotura duten erakundeei eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak

Sus datos se incorporan al tratamiento “SUBVENCIONES” del que es responsable Getxo Kultura y que tiene como finalidad gestionar las subvenciones que aprueba Getxo Kultura. La base jurídica del tratamiento es el consentimiento y el otorgamiento de una subvención y podrán ser cedidos a organizaciones directamente relacionadas con la persona responsable. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus (delegada de protección de datos) incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos



Balioztatze Kodea / Código de validación: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena / Comprobación: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 24

# I. ERANSKINA: ERAKUSKETA PROIEKTUA
ANEXO I: PROYECTO EXPOSITIVO

| |
|---|
| **Proiektuaren izenburua**<br>Título del proyecto |
| **Obraren deskribapena (disziplina artistikoa: pintura, eskultura, argazkigintza, instalazioa, bideoarte, bestelakorik), obren banaketa espazioan)**<br>Descripción de la obra (disciplina artística: pintura, escultura, fotografía, instalación, videoarte, otros), distribución de las obras en el espacio. |
| |
| **Behar teknikoak**<br>Necesidades técnicas |

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

**II. ERANSKINA: PLANOAREN GAINEKO PROPOSAMEN GRAFIKOA**
ANEXO II: PROPUESTA GRÁFICA SOBRE PLANO

Euskadi 2006

| A: RKE |
| --- |
| **Adierazi RKEko espazioan erakutsi beharreko obren banaketa, www.getxo.eus/erakusketetan eskuragarri dagoen erantsitako planoaren arabera.**<br>Indicar la distribución de las obras a exponer en el espacio de RKE según plano adjunto disponible en la web municipal. |
| |

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 24

GETXO KULTURA

# III. ERANSKINA: MEDIAZIOA PLANA
ANEXO III: PLAN DE MEDIACIÓN

Euskadi 2006

| **ERAKUSKETA ETA BITARTEKARITZA PLANA /** EXPOSICIÓN Y PLAN DE MEDIACIÓN |
|---|
| **ERAKUSKETAREN IZENBURUA**<br>TÍTULO DE LA EXPOSICIÓN<br><br>**MEDIAZIO PLANAREN IZENBURUA**<br>TÍTULO DEL PLAN DE MEDIACIÓN |
| **HELBURUAK** / OBJETIVOS |
| **MEDIAZIOAREN HELBURUAK (500 karaktere gehienez)**<br>OBJETIVOS DE LA MEDIACIÓN (máximo 500 caracteres) |
| **XEDE-TALDEA (zein publiko zehatzengana joko du konpainiak mediazio prozesuan?) (500 karaktere gehienez)**<br>PÚBLICO OBJETIVO (¿A qué público específico se va a dirigir el proceso de mediación?) (máximo 500 caracteres) |

Baliozkotze Kod.: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 24

| |
|---|
| **METODOLOGIA**<br>**(zein izango da landuko den gaia? Nola landuko da? Zein prozesu eta material erabiliko da lanketarako?)**<br>**(500 karaktere gehienez)**<br>(¿Qué tema se va a trabajar? ¿Cómo se va a tratar? ¿Qué procesos y materiales se van a utilizar?)<br>(máximo 500 caracteres) |
| **TOPAKETAK**<br>ENCUENTROS<br><br>- **KOPURUA** / CANTIDAD:<br><br>- **IRAUPENA** / DURACIÓN:<br><br>- **HIZKUNTZAK** / IDIOMAS: |
| **EBALUAZIOA**<br>**(azaldu labur zer neurtuko den mediazio planaren arrakasta ebaluatzeko)**<br>EVALUACIÓN<br>(explica brevemente qué se va a medir para evaluar el éxito del plan de mediación) |

Zure datuak "DIRULAGUNTZAK" tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxoko Kultur Etxea da eta helburua du Kultur Etxeak onartutako diru-laguntzak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta diru-laguntza bat esleitzea da. Datuak arduradunarekin zuzeneko lotura duten erakundeei eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak

Sus datos se incorporan al tratamiento "SUBVENCIONES" del que es responsable la Getxoko Kultur Etxea y que tiene como finalidad gestionar las subvenciones que aprueba la Kultur Etxea. La base jurídica del tratamiento es el consentimiento y el otorgamiento de una subvención y podrán ser cedidos a organizaciones directamente relacionadas con la persona responsable. Su titular tiene derecho de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección postal del Ayuntamiento o a datuak@getxo.eus (delegada de protección de datos) incluyendo en ambos casos documento acreditativo de su identidad. También puede iniciar el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.getxo.eus/datos

Balioztatze-kodea: 49W4YYRXTQ4KH7MZADGFC9ZZW
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 24